

## OSAKIDETZA-EUSKAL OSASUN ZERBITZUAREN ADMINISTRAZIO- KONTSEILUAK 2024KO IRAILAREN 23AN IZANDAKO EZOHIKO BILERAREN AKTA

2024ko irailaren 23an, 10:30ean, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuaren Administrazio Kontseilua eratu da, Bilbon, eta bat etorriaz Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen 17.5 artikuluekin, Kontseilu honi dagokionez joko da akta honetan jasotako erabakiak Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuaren egoitza zentralean adostuak izan direla, Gasteizko Araba kaleko 45ean, hori baita erakundearen egoitza.

Behin aurrekoa argi azaldu ostean, eta Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuaren Administrazio Kontseiluaren presidentearen deialdi bidez, honako hauek bildu dira: **Alberto Martínez Ruiz**, Osasuneko sailburua, presidentea; **Enrique Peiró Callizo**, Osasuneko sailburuordea, **Miren Lorea Bilbao Artetxe**, Administrazio eta Finantzaketa Sanitarioko sailburuordea, **José Enrique Corchón Álvarez**, Eusko Jaurlaritzaren Finantzaketa eta Aurrekontuetako sailburuordea eta **Josu Iñaki Garay Ibáñez de Elejalde**, Aurrekontuetako zuzendaria.

Presidente jaunak egiaztatu du behar adinako quoruma dagoela eta, bat etorriaz Osakidetza-Euskal osasun zerbitzua Ente Publikoaren Estatutuak ezartzen dituen azaroaren 11ko 255/1997 Dekretuan eta Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legean ezarritakoarekin, bertaratu direnek osoko bilkura eratu dute, presidente jaunak deitu duen bilera egin ahal izateko. Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuaren Estatutu Sozialen 8.3 artikuluan ezarritakoaren arabera, presidenteak baimena eman ondoren Kontseiluan izan dira honako hauek: Ente Publikoaren zuzendari nagusi **Susana López Altuna** eta Ente Publiko horretako Aholkularitza Juridikoaren zuzendariorde **Maiteder Mielgo Rubio** (idazkaria izateko).

### GAI-ZERRENDA

**LEHENENGOA - Onkologikoa osasun-zentroaren organo gidarian egongo den pertsona onestea, Administrazio Kontseiluak proposatuta.**

Onkologikoa Fundazioarekin izenpetutako atxikimendu-hitzarmenari jarraikiz (Gobernuaren Idazkaritzaren eta Legebiltzarrarekiko Harremanen zuzendariaren abenduaren 28ko 169/2018 Ebazpenaren bidez argitaratu zen hitzarmena), Hamahirugarren Klausulan ezarrita dago zelan osatuko den Onkologikoa osasun-zentroaren organo gidaria.

Klausula horretako lehenengo apartatuan ezartzen denez, organo gidari hori Onkologikoa Fundazioak izendatutako sei kidek osatuko dute, eta pertsona bat izendatuko da Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuaren Administrazio Kontseiluak proposatuta.

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuaren Administrazio Kontseiluak Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuaren zuzendari nagusi **Susana López Altuna** izendatu du Onkologikoa osasun-zentroaren organo gidariko kide gisa.

**ERABAKIA:** Aho batez onetsi dute Administrazio Kontseilua osatzen duten kideek.

### **BIGARRENA. - Informazioak eta galde-eskeak**

Ez da tratatu beharreko beste gairik egon eta, beraz, bilera amaitutzat eman da, 2024ko irailaren 23ko 11:00etan.



Izpt.- Maiteder Mielgo Rubio  
Idazkaria



Izpt.- Alberto Martínez Ruiz  
Presidentea  
Osasuneko sailburua  
ontzat emana